

EZ DOK AMAIRU

1966-03-06 / 1972ko abendua

Ukaezina da 60-70 hamarraldian gure herrian izan zen kultura mugimenduaren ezaugarriarik serio eta sendoenetarikoa *Ez dok amairu* taldearen sorrera izan zela, -euskal kantagintzaren sailean, bereziki-. Belaunaldi helduek nekez ahaztuko dute 1966 urtearen hasieran talde mitiko hark ekarri zuen poza eta ilusioa, frankismoaren garai petranean zerbaiten behar gorrian zegoen-eta Euskal Herria.

Gipuzkoako kantari ezagun asko bildu zen talde hartara, elkarlanean zerbait gehiago egin nahita, Catalunyan *Els Segte Jutges*-ek egin zuen moduan. *Ez dok amairu*, batez ere, euskal kantagintza berriaren bideetan topo egin zuten lagun batzuen egitasmoa zen, taldera bildu nahi zuten denei atak irekiz. 1965eko urriaren 13an Zarautzen, eta handik hamabost egunera Azpeitian egin ziren lehenengo bilerak. Eta urte hartako azaroaren lehen hamabostaldian euskal musika eta kulturaren alor ezberdinetan lanean ari zirenei dei egin zitzaien, partaide izan zitezten. Eta halaxe bildu ziren Lourdes Iriondo, Joxean Artze eta Joxemari Iriondo, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Julen Lekuona, Joxe Angel eta Juan Migel Irigarai, Bihurriak (Arantxa Gurmendi), Jose Luis Frantzesena *Schubert*, Imanol Urbietta, Joxe Antonio Villar, Juantxo Mingo, Mikel Bikondoa, Yoloak, Oskarbi, Angel Mari Arenas eta abar. Bestalde, ezin ahaztu inola taldearen sorreran Nemesio Etxaniz, Jorge de Oteiza, Koldo Romero, Jose Luis Zumeta, Nestor Bazaterretxea, Fernando Larrukert eta beste hainbat euskaltzalek emandako laguntasuna eta animoak ere.

Taldearen aurkezpena

1966ko otsailaren 9an Hernanin, eta 23an Donostiako Victoria Eugenia emandako jaialdietan izandako arrakastaren ostean, *Ez dok amairu* izenarekin eman zen lehenengo jaialdia, taldearen aurkezpen ofiziala, Irungo *Bellas Artes* aretoan egin zen, 1966ko martxoaren 6an. Lourdes Iriondo, Julen Lekuona, Joxe Antonio Villar, Bat eta Bi bikoa, Bihurriak, Artze anaiak eta Oleskariak zortzikoak kantatu zuten egun hartan; eta jaialdiaren azkenean, *Pelotari* filmea (Bazterretxea-Larrukert) eman zen, Xabier Lete eta Joxemari Iriondok aurkeztu zuten jaialdian.

Berebiziko arrakasta izan zuten, orduko egunkarietako kronika guztietan aitortzen denez. Irungo aretoa gainezka bete zen, beste herrietakoak bete ziren bezalaxe; baina 9.050 pezeta bildu ziren sarreretatik, eta 150 pezeta bakarrik gelditu kaxarako, aretoaren alokairua, *SGAE-Menores* zergak eta beste zenbait kustu ordaindu ostean.

Hurrengo jaialdiak, berriz, Zumarragan, Seguran, Ordizian, Madrilén, Donibane Lohizunen, Errenterian, Orion, Ondarroan, Durangon, Bilbon, Eibarren, Ondarroan (bigarren aldiz), Bermeon, Andoainén, Bergaran, Lekeition, Donostian, Barakaldon, Bilbon (bigarren aldiz), Bartzelonan eta abar eman ziren, hurrenez hurren. Durangokoa izan zen, hain zuzen ere, Bizkaian egin zen lehenengo jaialdia, 1966an, II. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren barnean.

***Baga, Biga, Higa* ikuskari/sentikaria**

Bost urtean mila eragozpen gainditu eta Euskal Herriko pilotaleku, plaza eta aretoetan kantatuz entzuleen gose-egarriari erantzuten saiatu ostean, formula eta bide berriak urratzeari ekin zion *Ez dok amairu* taldeak, 1970ean, ordura arte egindakoaz aspertuta-edo. Euskal kantutegi zaharreko abesti baten izen bitxia izenburutzat hartu eta *Baga, Biga, Higa* sentikari/ikuskaria prestatu zuen, gure kantugintzaren bideetan aurrera eginez gogotik. Portugalete hautatu zuten ikuskari/sentikariaren lehen aurkezpena handikiro egiteko, Elai-Alai taldearekin elkarlanean. Ausardia behar zen horretarako, baina sekulako arrakasta izan zuten, gero Urnietan, Elorrión, Tolosan, Irunen, Azpeitian, Bergaran, Barakaldon, Zegaman, Ordizian, Beasainen, Hondarribian, Usurbilen, Zarautzen, Hernanin, Zumarragan, Pasaian, Donostian, Paben, Bartzelonan, Donostian, Gasteizen, Bretainan eta abar izan zuten bezalaxe.

Taldearen azkena

Azkenik, arazoak sortu baitziren, taldea desegiteko erabakia hartu zuten *Ez dok amairuko* kideek, 1972ko urtearen azkenean, zazpi urteren buruan ondo egindako lanaren ahogozo ezin ederragoa kantu eta euskaltzale guztien bihotzondoetan utziz. Ez dago esan beharrik zer-nolako hutsunea utzi zuen.